

FACULTAD
DE CIENCIAS
JURÍDICAS



ZIENTZIA
JURIDIKOEN
FAKULTATEA

GRADU AMIERAKO LANA / TRABAJO FIN DE GRADO

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA NAFARROAN GERRA ZIBILAREN GARAIAN:

LUIS ELIO EPAILEA

Irati Jimenez Aragon

DIRECTOR / ZUZENDARIA

Roldán Jimeno Aranguren

Iruñea

2014ko ekainaren 6a

Laburpena: II. Errepublika garaian Nafarroan epailea izan zen Luis Elioren kasua aztertzen dugu hemen. Pertsonaiaren bizitza eta obra ezagunak dira, baina datu berriak ematen ditugu, ireki zioten Erantzukizun politikoen espedientetik ateratakoak. Epaile honen kasua gerra zibilean eta frankismoaren lehendabiziko urteetan emandako garbiketa prozesuaren testuinguruan ematen da. Garbiketa prozesu hau sistema diktatoriala bermatzeko bide bat izan zen, honela Iruñean eta Nafarroan gainontzeko Estatuko beste probintzietan bezala aurrera eraman zen prozesu hau, Erantzukizun politikoen legea oinarritzat hartzen zuena. Elio, gerra zibilaren urteetan, hiru urte logela batean ezkutaturik egon zen, eta azkenean, Frantziara ihes egin ondoren –non Gursen hilabete batzuk eman zituen–, Mexikon errefuxiatu egin zen.

Giltza hitzak: Luis Elio epailea. Nafarroa. Justizia Administrazioa. Nafarroa. Gerra Zibila.

SIGLEN ERLAZIOA

FET de las JONS

Falange Española y Tradicionalista de las
Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista

PSOE

Partido Socialista Obrero Español

CGPJ

Consejo General del Poder Judicial

AURKIBIDEA

I. SARRERA	5
II. LUIS ELIO TORRESEN ADIBIDEA	6
1. Aberatsa, epailea eta ezkertiarra.....	6
2. Gerra zibilean atxilotua izan zen lehena.....	7
3. Ezkutalekuaren bakardadean.....	10
4. Ihesaldia, Gurs eta Paris.....	12
5. Mexiko.....	12
5.1. <i>Maria Luisa Elio Bernal</i>	13
III. ELIO EPAILEAREN KONTRAKO ESPEDIENTEAK	14
1. Testuinguru legala.....	14
1.1 <i>1939ko otsailaren 9ko legea</i>	14
1.2 <i>108. dekretua</i>	16
2. Justizia Administrazioan eman zen garbiketa prozesua.....	18
3. Espedienteak.....	23
IV. ONDORIOAK	28
BIBLIOGRAFIA	33

I. SARRERA

Espainiar Estatuko, eta bereziki, Nafarroako historia garaikideko gertakaririk garrantzitsuenetarikoa Gerra zibila izan zen eta honen ondoren frankismoak edota sistema diktatorialak ekarritako garai historikoa daukagu. Gertakari horren ondorioz Espainian sistema autoritario bat ezarri zen, hau da, modu pertsonalistan agintzen hasi zen. Sistema diktatorialaren oinarri garrantzitsuenak alderdi bakarraren ezarpena, sistema autoritario eta pertsonalista eta intelektuala ez den erregimena izatea dira batez ere, Hitlerren eta Mussoliniren sistema diktatorial nazionalsozialistan oinarritu zena.

Hala ere, gerra baino urte batzuk lehenago kokatu dugu gure burua, hogeita hamarreko hamarraldiaren hasieran hain zuzen ere. Jakina den bezala, 1931ko apirilaren 14ean II. Errepublika aldarrikatu eta 1936ra arte iraun zuen, urte honetan egoera soziala pil-pilean zegoelarik. 1936ko otsaileko hauteskundeetan Frente Popularrak irabazi zuen % 47.03 botoekin¹. Nafarroan, aldiz, eskuindarrek botoen %70 eskuratu zituzten². Hauteskundeen emaitza hauek ez zuten eskuindarrek oso ongi hartu, eta konspirazio militarrek garrantzi erabakigarria hartu zuen horren ondorioz³, honela Frankok uztailaren 18an kolpe militarra eman zuen. Hurrengo egunean, Iruñean Mola jeneralak gerra egoera deklaratu zuen honela hasi zen Espainiako gerra zibila.

Gerra zibila 1936ko uztailetik 1939ra iraun zuen, ondoren, Frankismoa heldu zen eta honen amaiera Francoren heriotzarekin eman zen; 1975eko azaroaren 20ra arte, hain zuzen ere. Gerra zibilean Nafarroak garrantzia izan zuen bereziki Mola jenerala⁴ Iruñean zegoelako.

Nafarroan, Falangearen gorakada eta Elizarekin bateratzearen ondorioz eskuineko joera nagusitu zen, eta frankismoaren alde jokatu izatearen ondorio nagusi bat Nafarroako foruak errespetatzea izan zen⁵. Hala ere, Frankismoak, edozein sistema diktatorial bat bezala, bere ideologia ezarri nahi zuen beste edozerren gainetik, honela berarekin bat ez zetorren edonork bidetik aldentzeko zuen horrek zegokion ondorioarekin. Momentu honetan, Frankismoak emandako garbiketa prozesua azalduko

¹Bigarren Errepublikako, 1936ko hauteskundeen emaitzak.

²FERRER MUÑOZ, M. *Elecciones y Partidos Políticos en Navarra durante la II. República*. Gobierno de Navarra, Pamplona, 1992.

³ALTAFFAYLA, *Navarra 1936 de la esperanza al terror*. Altaffayla, Tafalla, 2004, 38. orr.

⁴Espainiako militarra (Cuba 1987-Burgos 1937), gerra zibilaren bultzatzaile nagusienetarikoa.

⁵ALTAFFAYLA, *Navarra 1936 de la esperanza al terror*. Altaffayla, Tafalla, 2004, 39. orr.

dugu, edozein estatu diktatorialak estatu instituzioak kontrolpean izan behar ditu izandako sistema hori mantentzeko. Instituzioak kontrolpean izateak botere legegilea pertsona bakar baten esku dagoela esan nahi du, ondorioz, pertsona horrek bere ideologian oinarrituta eramango du botere hau. Honela, Frankok FET de las JONSekoekin batera legeak onartzen zituen bere helburua lortzeko. Kontrol hori lortu ahal izateko hainbat metodo eta instrumentu erabili izan dira, horiek guztiak errepresioarekin loturikoak. Metodo horien adibide bat funtzionarioen artean egon zen garbiketa prozesua izan zen, izan ere, berak nahi zituen funtzionarioak izendatu zituen modu honetan berarekin bat ez zetozenak aldentuz. Prozesu hau maisu eta maistren artean eta epaile eta fiskalen artean eman zen batez ere, hezkuntzaren eta botere judizialaren gaineko kontrola eskuratuz.

Emandako garbiketa prozesua errepresioaren adibiderik esanguratsuena da, gainera Nafarroan, beste autonomi erkidegoetan baino lehenago hasi zen. Hori dela eta, errepresioaren lehenengo biktimen artean, Iruñeko Luis Elio Torres epailea dugu. Baliteke biktima hau lehenengo biktima izate ere, zeren uztailak 19an atxilotua izan eta bizitako esperientzia guztien ondorioz Mexikon bukatu zuen, beste errefuxiatu askok bezala. Ezin dugu ahaztu garai horretan Mexikoko Gobernuak Espainiako errepublikazaleei babesa eman zuela, Frantzia edota beste edozein estatuk baino gehiago.

Beraz, honekin guztiarekin, kasu konkretu bat aztertuko dugu; epaile batek, hau da, botere judizialaren parteetako batek, nola jasan zuen frankismoak ekarritako errepresioa, ezarritako ideologiarekin bat ez zetorrenean.

II. LUIS ELIO TORRESEN ADIBIDEA

1. Aberatsa, epailea eta ezkertiarra

Luis Elio Torres Tarragonan jaio zen 1895. urtean, Fausto Elio Vidarte eta Carmen Torres Iglesias guraso zituelarik. Berez, bere familia nafarra zen baina aitaren lanbidearen ondorioz (ingeniaritza zibila), hau Tarragonan lanean zegoen bitartean Luis Elio jaio zen bertan. Carmen Bernal Lopezekin ezkondu zen eta hiru alaba izan zituzten elkarrekin: Carmen, Cecilia eta Maria Luisa.

Zuzenbidea ikasi eta gero Iruñean kolegiatu eta bi urte inguru eman zituen abokatu bezala lan egiten, eta hogeita hamaika urte zituenean udal epaile izendatu zuten

Iruñean. Honela, *komite paritarioetan*⁶ parte hartu zuen eta Bigarren errepublikan zehar *Epaimahai mistoetan*⁷ zuzendari bezala egon zen, bere helburua interes pribatuen gainetik legea betetzen zela konprobatzea zen⁸.

Beraz, honekin guztiarekin antzeman dezakegu Luis Elio ez zela Frankoren (edo garaiko nazionalsozialismoaren) ideologiarekin bat etortzen, hala ere, ez zen politikoki aktiboa izan, bere lan esparrura mugatu zen. Honenbestez, aski garbi eta publikoa zen bere burua errepublikarra, liberala, sozialista eta euskaltzale bezala kokatzen zuela, bere inguruan egin den azken lanean, Roldan Jimeno Arangurenegatik egindakoa, azaltzen den bezala⁹.

Beste modu batean azalduta, bere ezkertiar ideologiari esker, elkarte batzuk zuzentzeko hautagai bezala aurkeztu zuten askotan, hala nola, lehen aipatutakoak: *Komite Paritarioa* eta *Epaimahai Mistoa*.

Luis Elio gizon aberats bat zela esan dezakegu, lursail asko bazituen jaraunspenagatik jaso¹⁰, hala nola, Barañaingo herria, Iruñean zenbait finka eta etxe bat errota batekin Agoitzen. Beraz, lursail nahiko zituela esan dezakegu eta ondorioz ez zen gaizki bizi. Gainera, bere finken kudeaketa eramaten zuen eta horren ondorioz liburu bat idatzi zuen *Contratos de arrendamientos de fincas urbanas*¹¹. Ez hori bakarrik, berak Barañaingo etxe asko musutruk eman zizkien han lan egiten zutenei. Bere maila soziala dela eta, Jose Antonio Primo de Rivera ezaguna zuen eta Rodezno kondearen senidea zen.

Epaile bezala zuen lanari buruz zenbait datu adierazgarriak dira, esaterako, CNTko hiru militante askatasunean utzi zituela aurretiko diligentziak eta gero.

2. Gerra zibilean atxilotua izan zen lehena

1936ko San Ferminak eta gero, Luis Elioren bizitza erabat aldatu zen, izan ere, uztailako egun horiek ez ziren egun arruntak izan Luis Eliorentzat. San Ferminak

⁶Patronoek eta langileek osatzen zuten organismoak ziren, lan konfliktuak konpontzeko helburuarekin.

⁷Epaimahai mistoak lan esparruan sortu ziren bitartekaritza epaitegiak ziren, *komite paritarioen* ondorengoak izan ziren.

⁸MATEO GAMBARTE E. "Luis Elio Torres", Á. GARCÍA-SANZ MARCOTEGI (Coord.), *El exilio Republicano Navarro*, Gobierno de Navarra, 2001, 360. orr.

⁹JIMENO ARANGUREN, R., "La represión y depuración en la Administración de Justicia: Navarra, 1936-1945. Una primera aproximación", *Jueces para la Democracia*, 79 (2014), 86-106. orr.

¹⁰Luis Elio familia aristokrata batetik zetorren, MATEO GAMBARTE E. "Luis Elio Torres", *op.cit.*, 358 orr.

¹¹ELIO TORRES, L. *Contratos de Arrendamientos de fincas urbanas*, Editorial Emilio Garcia Enciso, Pamplona 1931

amaitu berriak ziren, baina Iruñean tentsio egoera nabarmena zen, eta Calvo Sotelo eta Castilloren erailketa ondoren tabernetan eta kaleetan eztabaidak arruntak ziren.

1936ko uztailaren 18an Iruñean Mola komandantea zegoen, honekin batera Rodriguez Medel guardia zibilaren komandantea aurkitzen zen hirian, baina azken hau gizartean ez zen Mola bezain ezaguna, errepublikazalea izateagatik batzuentzat eta besteentzat berriz, guardia zibila izateagatik. Askotan kontatu ohi da bien artean izandako elkarrizketa, nola Molak altxamenduaren alde jartzea eskatu zion behin eta berriz, baina Rodriguez Medel ez zen bere eleketatik atera¹². Arratsaldean, Medelek bere gizonak prestatu zituen beharrezkoa zen tokira eramateko baina hauek ez zuten eginkizun hori aurrera eraman nahi eta ondorioz Medelen kontra jarri ziren. Zenbait liskarren ondorioz Medel bere bizitza arriskuan zegoenaz ohartu zen, eta hala izan zen, guardia zibil batek buruan tiro egin baitzion. Medel hil egin zen.

Hala ere, *El Escarmiento* liburuan irakur dezakegun bezala, hurrengo goizean, uztailak 19an, danbor batzuek esnatu zuten Luis Elio eta danborrekin batera beste talde bat entzun zitekeen Labrit aldapa inguruan metrailadore batekin, badaezpada, norbaitek Txantreako auzotik nahi ez zuten modu batean igotzen baldin bazen, erantzuna berehalakoa izateko.

Goiz hartan, Eliok oraindik ez zen Rodriguez Medelen erailteaz gailendu. Han zegoen bere etxean zer egin jakin barik. Leihotik begira jarri zen, Iruñeko zezen plazarantz begira eta hor zeuden erreketeko talde batzuk Erret Martxa jotzen, baina horrek ez zuen ezer ikustekorik normalean San Fermin osteko egunetan zegoen builarekin.

Luis Elioren hitzetan¹³ goiz horretan ez zen San Fermin jaietako osteko zarata entzuten, zer edo zer pasatzen ari zen Iruñeko kaleetan, gauzak ez ziren betiko moduan diharduten. Bakarrik “*jiva!*” entzun zezakeen falangista batzuen ahotsetan.

Miguel Sanchez Ostizek azaltzen duen bezala, ez daki zergatik momentu honetan Eliok ez du ihes egitea erabakitzen. Haren ustetan, arazoa ez zetorren bere jokaera zuzenenaz ziur ez zegoelako, nahiz eta pertsona zuzena izan, aristokraziako familia batetik etortzen zelako baizik. Hau da, Eliok Iruñean lagun eta ezagun asko zituen. Zer egin behar zioten ba berari?

¹²SANCHEZ OSTIZ, M. *El escarmiento*, Pamiela, Iruñea, 2013.

¹³ELIO TORRES, L. *Soledad de Ausencia*. Pamiela, Iruñea, 2002.

Idazlearen ustetan¹⁴, galdera horren erantzuna argi dago; hau hil. Beste hainbesterekin gertatu bezala, igual zen aristokratako familiatik eratortzea, nahiz eta Rodezno familiakoa izan, Iruñeko familiarik garrantzitsuenetariko bat zena.

Goiz erdia aldera, bere etxean boluntario bat aurkeztu zen, hau amutzat erabili zuten berak Epaitegitik paper garrantzitsu bat zekarrela esan eta Eliok sina zezan, papera jaiotza egiaztagiri bat omen zen. Gizonak herriko gizon baten ohi itxura zeukan, baina Eliok susmo txarra hartu zuen, honek ez baitzuen ez agurtu ezta begietara begiratu ere ez egin. Baina dokumentua sinatu eta gizona agurtu zuen.

Gainontzekoek bitartean eskaileretan ezkutaturik itxaroten zuten amua atera arte. Elioren hitzetan, oso denbora gutxi pasa zen berriz ere atera deitu zutenen arte. Bi polizia sekretu, hauek aurreko arratsaldean bere bulegoan egon zirenak, eta bi falangista agertu ziren Elio atxilotuz. Hala ere, oraindik eskailburuan zeudela, igogailutik beste lau erreketek agertu ziren, haiek ere nahi baitzuten meritu hori irabazi, beraz osotara zortzi gizon ziren Elio hartu zutenak.

Honela, polizia sekretuko batek argi eta garbi esan zion Eliori, bera Molaren pean geratzen zela eta haiekin joan behar zela.

Berehala gurutzatu zuten Karlos III.a etorbidea eta handik polizia-etxera joan ziren, Orreaga eta Paulino Caballero artean zegoen komisaldegira hain zuzen ere. Hara ailegatzerakoan poliziak lista batean begiratu eta Elio bertan zegoela ziurtatu zuen. Momentu honetan kontuan izan behar dugu, denbora gutxi eman zela altxamendua egin zenetik, beraz, lista hori eta bertan agertzen ziren izenak aspalditik zeuden pentsatuak. Behin komisaldegian zeudela, Elioren hitzetan, berak epaile bezala zuen prestigio guztia galdu zuen eta Elio soilik izatera pasa zen, bultzadak jaso zituen irainekin. Hori bukatzerakoan German Izquierdo poliziarengana joan zen, honek, aski ongi ezagutzen baitzuen Elio eta ondo zekien zein egoeratan aurkitzen zen hura.

Momentu horretan Eliok epaile bezala legalitateari buruz hitz egin zion, bera legearekiko autoritate bat zela eta horrek zekarren ondorio guztiak argi utziz, baina hala ere une hartan hitz horiek ez zuten ezertarako balio izan, altxamenduaz geroztik legaltasunak balio handi bat galdu zuela esan baitezakegu. Historiak dioten arabera, norbait beste norbaiten salaketaren ondorioz atxilotua izaten ohi zen, salaketa hauek

¹⁴. SANCHEZ-OSTIZ, M. *El Escarmiento*, Pamiela, Iruñea 2013, 213. orr.

herrian edo hirian bertan gertatzen ohi zeren. Nafarroan, erreketek edota karlistak izan ohi ziren beraien auzokideenganako salaketak jartzen zituztenak, beraz, Luis Elioren kasuan baliteke bere auzokide karlistaren bat izatea.

Nahiz eta hasiera batean Eliori ihes egiten utzi zion pertsona Izquierdo izan zela pentsatzen zen, gero jakin izan zen Generoso Huarte Vidondo¹⁵ izan zela. Generoso erreketea eta karlista zen, eta kartzelan egonda armak modu ilegalean izateagatik. Generoso eta Elio elkar ezagutzen ziren Epaimahai Mistoetan ibiltzeagatik, azkenaldian lan asko egin baitzuten elkarrekin hainbat lan harreman konfliktoetan. Eliorekin zegoen bitartean Generosok egoera horren aurrean ezin zuela ezer egin esan zion, eta zorte handia izan zuela atxilotutako lehendabizikoetarikoa izan baitzen.¹⁶ Are gehiago, Luis Elio kolpe militarren lehendabiziko biktimen artean kokatu dezakegu. Aurrekoarekin jarraituz, Eliori esan zioten bezala hurrengo atxilotuak etorri bezain pronto kamioi batean sartu eta hormara eramango zituzten guztiak. Beraz, ihes egiteko aukera eman zion atzeko atetik, baina elkar adostu zuten norbaitek galdetzen bazuen haiek ez zutela elkar hitz egin erantzun behar zuela.

Hau da Luis Eliok kontatu zuena *Soledad de Ausencia* liburuan, baina gauzak ez ziren honela izan¹⁷ kontuan izan behar dugu liburu hau 60ko hamarkadan idatzi zela eta ezin zituela izenak eman, hauek ez salatzeko asmoarekin.

3. Ezkutalekuaren bakardadean

Berez, komisaldegitik Generoso Huarteren atzetik atera zen eta hitzik esan barik bere etxera joan ziren, Garcia Ximenez kaletara hain zuzen ere. Han, gutxi gorabehera hilabete batez egon zen eta gainera bere emazteak sarritan bisitatzen zuen bere senarra, alboko etxean Elioren lehengusinak bizi baitziren; Maria Concepcion Elio Escudero eta Celesta Elio Escudero. Dena den, etxe horretatik atera zenean Carmen ez zuen berriz ikusi, honek gainera Elio ezkutaturik non zegoen ez zekien ere. Kasu honetan, dirudienez ez zen aski ondo moldatzen etxeko gizonarekin, honek aurpegiratu baitzion bere bekatu handiena ingurukoei adibide txarra ematea izan zela, Elio defendatzeko bere sentimendu erlijiosoaz baliatu zen gehienbat. Hala ere, hori ez zen arazo nagusia,

¹⁵ Generoso Huarte Vidondo (1886-1978) Iruñeko karlista eta inprimatzailea.

¹⁶ Egun horretan hamasei atxilotu gehiago izan ziren

¹⁷ MATEO GAMBART E. "Luis Elio Torres", Á. GARCÍA-SANZ MARCOTEGI (koord.), *El exilio Republicano Navarro*, Gobierno de Navarra, Pamplona, 2001, 358. orr. eta hurrengoak.

Eliok herri xumeari bereak ziren finka batzuk ematea baizik. Hau jokaera komunista bezala hartu zuten eta honen aurrean Elio, jokaera justu eta kristaua zela aldarrikatzen zuen.

Egoera okerrera zihoan heinean, Blas Inza Cabasesen¹⁸ etxera eraman zuten. Blas Inza Elio familiarentzat lan egin zuen eta momentu hartan Miserikordia etxean lan eta bizitzen zen. Luis Eliok bere liburuan bere historiako pasarte hau ezberdin kontatu zuen, berriz ere, inplikatuak historia honetan nahasiak ez izateko.

1939ko abuztuan sartu zen eta ordurako bakarrik bere ilobarekin hitz egiteko aukera izaten zuen. Dena den, Luis Elioren liburuan datu hau ez da agertzen berriz ere segurtasuna bermatzeko. Etxe horretan hiru metro karratuko logela batean egon zen, apenas argirik sartzen ez zena.

Bere senideak kontatu duten bezala, Luis Eliok logela hartatik Iruñeko Ziuadadelako fosoetan gertatzen ziren fusilamenduan entzuten zituen. Bere mantendua, eta bizitzeko beharrezkoa zuena Inza Cabaseses ilobak, Ferminak, eramaten ziolarik.

Bere bizitzari dagokionez hipotesi asko egin ziren Iruñeko jendearen artean, esaterako, bere buruaz beste egin zuela edota San Kristobaleko espetxean fusilatua izan zela¹⁹. Honela ba, bere emazteak eta alabek ez zekiten ezer Luis Eliori buruz. Ez zen hori Elio-Bernalen familiaren larritasun bakarra, garai horretan Batzorde Karlistak bere emaztea, Carmen Bernal, atxilotzeko agindua eman baitzuen.

Logela horretan eman zuen egunetako batean erregistroa egitera sartu ziren, baina ez zuten harrapatu argiketariz mozorrotu zelako, honen ondorioz etxeko gizona haserretu egin zen eta egoera ezinegona zela adieraziz, Luisek denboraldi bat eman zuen ganbaran zegoen habe lodi baten gainean. 1939ko abuztuan, Ferminak, korrika eta presaka Luis zegoen logelara abiatu zen eta ziztu bizian gauzak prestatzeko agindua eman zion.

¹⁸Blas Inza Cabases (1885-1970) Miserikordia Etxearen zuzendaria eta errepublikaren kontrako altxamenduaren aldekoa.

¹⁹MATEO GAMBARTE E. "Luis Elio Torres", Á. GARCÍA-SANZ MARCOTEGI (koord.), *Elexilio republicano navarro*, *op.cit.*, 364. orr.

4. Ihesaldia, Gurs eta Paris

Azkenean, 1939ko abuztuaren 31an, gerra bukatu zenean, hiru urte ondoren bere ihesa prestatu zuten, dirudienez Javier Arbizu, Generoso Huarte eta Blas Inza izan ziren prestatu zutenak. Honela egin zuten: bi kotxetan antolatu ziren, lehenengoan Generoso, bere emaztea eta bere alaba joaten ziren, azken hau eskolako uniformearekin joaten zen despistatzeko asmoarekin Luis Eliorekin batera. Bigarrenean aldiz, Generosoren bi semeak, apaiz bat eta beste hiru gehiago. Frantziako muga Justo Sonante mugalariaren bidez pasa zuten eta Baionako kontsulatura iristea lortu zuten azkenean.

Handik gutxira, Gurseko kontzentrazio gunera eramán zuten baina bertan eman zituen hilabeteetan gaixotu egin zen. Azkenean Parisera ailegatu eta familiarekin elkartu zen. Bere familia, Parisen zegoen bitartean, Elioren lehengusina baten etxean bizi ziren bertan. Bere lehengusina, Manuel Gonzalez Andiarekin ezkondata zegoen, honek “Junta Central Carlista de Guerra de Navarra”-n parte hartzen zuen eta bere eginkizuna Frantziako talde lagunekin elkartzea zen.

Parisen ez ziren denbora luzez egon eta handik gutxira Mexikorantz bidaia egin zuten, behin Mexikora iristean bere emazteak Indalecio Prietoren idazkari bezala lan egiten hasi zen. Mexikora 1940. urteko martxoaren 18an heldu ziren. Hala ere, historiako momentu honetan, espedienteetan ikus dezakegun moduan bere emaztearengan atxilotzeko agindua ezarri zen.²⁰

Hala ere, Maria Luisa Elioren hitzak bildu ditzakegu hemen: “*pasaron veinte o treinta años antes de que muriera, no sé cuantos exactamente, pero el anterior papá ya había fallecido*”.²¹

5. Mexiko

Behin Acapulcon egonda Luis Eliok “Junta de Auxilio a los Republicanos”-etan lan egin zuen soldata txiki baten truke. Bere emaztea, lehen esan bezala, Indalecio Prietoren idazkaria zen eta bere soldata Luisena baino askoz ere altuagoa zen. Sozialista bere emaztearengan maitemindu zen, eta azkenean Carmen Bernalek psikiatrikoki gaixotu eta bereizi egin zen. Beraz, esan dezakegu gauzak ez zirela batere ondo joaten Elio-Bernal familian.

²⁰ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm 775.

²¹ Maria Luisa Elio y la vida propia como fabulación, *Diario de Navarra*. 2009ko abuztuaren 10a, astelehena.

Luis Elio hango unibertsitatean zenbait asignatura egin eta gero Zuzenbideko titulazioa konbalidatzea lortu zuen eta garrantzi asko ez zuten kasuak eramaten hasi zen, ondoren Mexikar batekin ezkondu zen eta Coyoacanera bizitzera joan zen bere alaba batekin, Carmenchu hain zuzen ere.

Espainiako egoerari zegokienez, bere errebeldia epaitu zen Erantzukizun Politikoen Eskualde-Epaitegian Alderdi sozialistaren kide izateagatik; Herriko Etxean eta Giza-Eskubideen Ligan parte hartzea ere leporatzen zioten. Bere kondena PSOEn barruan egoteagatik bakarrik izan zen; 75.000 pezetatako isuna ordaindu behar zuen, eta betirako inhabilitatua gelditzen zen. Hala ere, zigor honetara nola ailegatu ziren ondorengo atalean azalduko dugu.

Azkenik, Mexikon nahiz eta sozialistatzat eta errepublikazaletzat bere burua hartu, Luis Elio ez zen militantea kontsideratzen eta Espainiarekin, Nafarroarekin eta politikatik at egon zen²².

5.1. Maria Luisa Elio Bernal

Lan honetan ezin dugu ahaztu Luis Elioren alabarik gazteena, 1929. urtean jaio zela Iruñean. Bere aita atxilotu eta denbora laburrean, aitaren heriotzaren berria ailegatu zitzairen. Familiak urduritasun eta ezinegon handia sufritzen zuen, azkenean bere amak Frantziara joatea erabaki zuen 1936ko abuztuaren 18an Dantxarineako bidea hartuz. Elizondon dentistarengana joan behar ziren, hala ere egun hartan Guardia Zibilak atxilotu zituen ama eta hiru alabak, atxilotuek hiru hilabete eman zituzten preso gutxi gora behera.

Elizondotik irten zirenean Donostiara joan ziren baina azkenean, Frantziara joan beharrean Valentziako bidea hartzea erabaki zuten eta amaren senide baten etxean geratu ziren. 1937ko uztaileanartzelona joan ziren, han amak Indalecio Prietorentzat lan egin zuen, eta gerraren azkeneko urteetan izan zen Frantziarako bidea hartu zuenean.

Parisen zeundela izan zen bera gauzak berdinak ez zirela izango ohartu zenean. Frantziako hiriburuan bere amak telefonista bezala lan egin zuen, Indaleciok lortu zion lanbide hori eta alabak barnetegi batean egon ziren. Egun batean, bere aitaren telegrama

²² MATEO GAMBART E. "Luis Elio Torres", Á. GARCÍA-SANZ MARCOTEGI (koord.), *El exilio republicano, op.cit.*, 361. orr.

bat iritsi zen kontzentrazio guen batean zegoela esanez, eta egun batzuk beranduago familia osoa elkartu zen.

Maria Luisaren hitzetan, aita bizirik zegoen, baina benetako aita aspaldian hil zen. 1940ko lehendabiziko hilabeteetan Mexikorantz bidaia hasi zuten, han aktore izateko ikasketak egin zituen. Bere gurasoen dibortzioa gogorra egin zitzaion eta azkenean berak amarekin gelditzeko erabakia hartu zuen. Urteak aurrera joan ahala Iruñea faltan botatzen hasi zen. Aski ezaguna den moduan Maria Luisa, Gabriel Garcia Marquezen laguna izan zen, haren hitzetan:

“con sus vértigos clarividendetes, y Jomí García Ascot, su esposo, paralizado por su estupor poético escuchaban mis relatos improvisados como señales cifradas de la Divina Providencia. Así que nunca tuve dudas, desde sus primeras visitas, para dedicarles el libro de Cien años de Soledad”.

Gainera, pelikula bat egin zuen erbestean hil ziren espainiarrentzat. 1968.urtean bere senarrarengan bereizi zen, eta urte berean bere aita hil egin zen, eta guzti horien ondorioz Iruñera itzuli egin zen eta bidai horren ondorioz bere esaldi famatu bat esan zuen *“ahora me doy cuenta que regresar es volver”*²³.

III. ELIO EPAILEAREN KONTRAKO ESPEDIENTEAK

1. Testuinguru legala

1.1 1939ko otsailaren 9ko legea

Lege hau²⁴ gerrako azkeneko urtean onartu zen, hala ere, gerrako garai honetarako Fronte nazionalak lurralde gehiago zituen bere esku eta beraz, garaile ateratzeko Fronte popularra baino aukera gehiago zituen. Momentu historiko honetan, Mugimendu Nazionala aurrera eraman zutenek haien burua gobernuburu izendatu zuten. Honela, 1939ko legea onartutako lehendabizikoen legeen artean aurki dezakegu.

Lege honen hitzaurrean ikus daiteke legea nolakoa izango zen eta zeintzuk izango ziren bere ezaugarri nagusiak. Honela, lehendabiziko atalean Gobernu horrek aitortzen du, euren burua Gobernutzat hartuz, betebeharrak batzuk bereganatu behar dituela eta hauen helburua Espainiaren berritze moral eta espirituala izango dela.

²³MATEO GAMBART E. “Luis Elio Torres”, Á. GARCÍA-SANZ MARCOTEGI (koord.), *El exilio Republicano, op.cit.*, 354. orr.

²⁴Erantzunkizun politikoei buruzko 1939ko otsailaren 9ko Legea, BOEn otsailak 13 argitaratua.

Beraz, ideal honekin jarraituz Erantzukizun Politikoaren legea onartzeko ordua zela uste zuen gobernuak, eta bertan helburua garbia zen: fronte popularrarekin, bai aktiboki edota pasiboki, lan egin zutenen errua likidatzea, besteak beste, subertsio gorria eraikitzen lagundu zutenak edota Fronte nazionalaren garaipena zaildu zutenak²⁵.

Lege honen beste helburua Espainiako gizartearen elkarbizitza baketsua lortzea zen, mugimendu nazionala salbatu zutenen artean alde batetik eta bestetik horren alde egin ez zutenen artean. Azken hauek, ordea, zigor batzuen ondorioz eta mugimenduaren alde jokatu zutela zin-egin ondoren.

Helburu hauek legeari handitasun berezi bat eman zioten, handitasun horrek edozein lege penal baino handiagoa eta zabalagoa izatera eramaten zuelarik. Horrek zergati bat zuen; hain zuzen ere, mugimenduaren kontra zeudenen intentzioa eta ondorioak hain ziren handiak, ezinezkoa zela proportzionaltasuna errespetatzea zeren hau errespetatzerakoan, Mugimendu Nazionalak egiaztatzen zuen zentzuarekin ez zuten bat egingo. Hau da, Mugimendu Nazionalak ez zuen ez miseriarik ez krudeltasunik nahi Espainiako gizartearentzat.

Guzti honen ondorioz, legearen ezaugarri nagusia ez da babestea, eta konstruktiboa izatea baizik, alde batetik berresle zorroztasunagatik eta bestetik, interes ekonomikoak eta nazio interesak amankomunean jartzeko erabiltzen diren formulengatik. Honela, zigor ekonomikoak moderazioz erregulatzen ziren, hala ere, kasu batzuetan, etorkizunean ekintza batzuk egiteko arriskua existituko bazen, ziurtasun neurri bat ezarriko zitzairen. Ziurtasun neurri horiek inhabilitazioan oinarrituak ziren adibidez, edo bizitokia aldatzea eta are gehiago, beste batzuetan espainiar nazionalitatea kentzeko aukera zegoen ere.

Beraz, erantzukizun bat dakartzaten akto edo omisioen zabaltasuna zein zen ezartzea gobernuari zegokion, bere irizpideetan oinarrituz. Hortaz haien asmoa erantzukizun gradu ezberdinei zigor egokia ezartzea zen. Ondorioz, hautamen judizialak garrantzi handia hartu zuen, beste era batean esanda, bere zabaltasunak ez zuen mugarik.

²⁵Erantzukizun politikoei buruzko legearen 1. artikulua.

Ejerzitoak, epaileak eta FET de las JONSEkoek osatu zituzten epaitegiak²⁶, beraien ebazpenak mugimendu nazionalaren ideologian oinarrituak izan behar ziren eta epaitegi ezberdinen armonia lortzeko Epaitegi Gorena, bere administrazio kudeatzailearekin batera, sortuko ziren.

Legearen edukiari erreparatuz lehendabiziko kapituluan atzera pauso bat onartzen zen, izan ere, erantzukizun politikoa 1934ko urriaren hasieratik 1936ko uztailaren hemezortzira mugimendu nazionalaren kontra egon ziren haientzat edo mugimendu nazionalarekiko jarrera pasiboa izan zuten haiei ezarri zitzairen. Baina ez hori bakarrik, argi dago mugimendu popularra edo gorria sortzera lagundu zuten haiei ere ezarri zitzaizela hau. Ondorengo partidu politikoak izan ziren hurrengoak:

Acción Republicana, Izquierda Republicana, Unión Republicana, Partido Federal, Confederación Nacional del Trabajo, Unión General de Trabajadores, Partido Socialista Obrero, Partido Comunista, Partido Sindicalista, Sindicalista de Pestaña, Federación Anarquista Ibérica, Euzko Alderdi Jeltzalea, Acción Nacionalista Vasca, Solidaridad de Obreros Vascos, Esquerra Catalana, Partido Galleguista, Partido Obrero de Unificación Marxista, Ateneo Libertario, Socorro Rojo Internacional, Partido Socialista Unificado de Cataluña, Unión de Rabassaires, Acción Catalana Republicana, Partido Catalanista Republicano, Unión Democrática de Cataluña, Estat Catalá, todas las Logias masónicas eta antzekotasuna zuten entitate, taldekatze edo alderdi kideak.

Laugarren artikuluan erantzukizunaren kausak eta erantzukizuna aldarazi zezaketen egoerak biltzen ziren. Bereziki, zigortuak izango ziren artikularen edozein arau pean erortzen zen edozein pertsona indibiduala izango zen arduraduna. Ikustekoa denez laugarren artikulua hori oso luzea zen eta bertan ekintza ezberdin asko sartuak ziren.

1.2 108. dekretua

Molak, Francok eta Queipo de Llanosek osatu zuten 1936ko abuztuan Defentsa Nazionalako Batzordea, hala ere, honen osaketa behin-behineko moduan egin zen, 1936ko irailaren 13an Dekretu hau onartuz²⁷.

²⁶1939ko otsailaren 9ko legearen hitzaurrea

²⁷BOE 25. Zenbakia, 1936ko irailak 16

Dekretu hau zazpi artikuluz eta xedapen gehigarri batez osatua zegoen. Hitzaurrean helburua agertzen zen, batik bat: *“medidas encaminadas a garantizar la responsabilidad que en su día puede alcanzarles (a los partidos políticos del F. Popular y a las Personas físicas Responsables) para la indemnización procedente (...) de declarar fuera de la ley a las agrupaciones ilícitas que siempre estuvieran al margen de ella”*.

Honela, lehendabiziko artikulua arabera partidu politiko guztiak legez kanpo geratzen ziren. Bigarren artikulua berriz haien ondasunen konfiskazioa biltzen zuen, eta hemen argitu beharreko puntua da ondasunei buruz hitz egitean bai ondasun higiezinak baita dokumentu ezberdinak sartu behar ditugula ere kontzeptu honen barruan. Honela, konfiskatutako ondasunak Espainiako Estatuaren menpe egotera pasako ziren.

Hirugarren eta laugarren artikulua arabera, jokaera antipatriotikoa edota mugimendu nazionalaren aurkako joera izan zutenen erantzukizunetako bat biltzen da, lanbide suspentsioa eta kargutik kentzearena ezartzen zaio, hala ere, hau guztia espediente judizial baten ondoren izan beharko zen.

Bosgarren artikulua aldiz ejerzitu buruei baimena ematen zien beharrezkoa zuten neurriak hartzeko, baina artikulua honek ez du erreferentziarik egiten pertsona fisika ala juridikoak diren, hala biak direla ondoriozta dezakegu. Eta ondorengo artikulua, Lehenengo Instantziako Epaitegiari ematen zion kompetentzia enbargoak egin zezan.

Azkenik, zazpigarren artikulua arabera, adierazgarria den arau bat ezartzen zuen; bosgarren eta seigarren artikuluan ezartzen ziren neurriei erreferentzia eginez, hau da, zigor bat jasan behar duten pertsona horien ondasunei erreparatuz, ondasun hauek, Estatuarenak izatera pasako dira kasu gehienetan, 1936ko uztailak 19 baino lehen transmitituak izan ezean.

Daniel Valles Muniok²⁸ esan bezala, Dekretu honetan adierazgarria da ez dela jokaera baten ondorioz kaltetua izango den pertsonaren identitatea jakingo. Bestalde, kalteak mota askotakoak izan daitezkeela ulertzen dugu. Honengatik guztiatik, segurtasun falta juridiko handia zuen Dekretua dela esan dezakegu, hala ere, kontzeptu

²⁸ VALLÉS, MUÑO, D. Comentario a la STS, 3ª, 7.4.2003.

hauen interpretazioa egiteko momentu historiko horretan kokatu behar gara, eta gehienbat Frankismoaren interesen defentsan oinarrituz.

2. Justizia Administrazioan eman zen garbiketa prozesua

Espainiako historiaren garai honetan, non eredu diktatorial bat zegoen, politika judiziala proiektu ezberdinen bidez egiten zen, proiektu horiek talde edo pertsona frankistek egiten zituztelarik. Kasu hauetan, Defentsa Nazionalaren Batzordeak, Auzitegi Gorenaren etendurarekin, herri-subiranotasunarekin lotutako justizia administrazioarekin bukatzen du.

Falangeak egin zuen bakarrik arlo judizialaren proiektu global bat²⁹. Hala nola, programa honek eredu liberalarekin³⁰ ez du zerikusi handirik, kasu hauetan totalitarismoaren ezaugarrietan oinarritzen baita. Beste hitz batzuetan esanda, justizia administrazioa oso zentralizatu eta hierarkizatu da, baina, modu liberalean ez bezala, kasu hauetan, garrantzitsuena mugimendu nazionalarekin bat etortzea zen. Are gehiago, Auzitegiek Frankorekin harreman zuzena izan behar zuten.

Gerra amaitu zenean, eta egitura administratiboa, gerra bitartean³¹ baino egonkorrago zenean, justizia administrazioaren definizioa planteatzen da, nahiz eta hasiera batean trantsitorioa eta behin-behinekoa izan, denborarekin behin betikoa izatera pasako da. Kasu honetan legerik garrantzitsuena 27/8/38 legea izango da. Honen bitartez Auzitegi Gorena berrantolatzen da eta Errepublika aldi ezarritako aldaketak ezabatu ziren, batik bat, katedratiko batzuk magistratutzat izendatzea. Are gehiago, kasu hauetan Auzitegi Gorenerako izendapenak Gobernuak erabakitzen ditu, eskumeneko boterearen bitartez. Azpimarratzekoa da 1945. urtean eman zen berrantolaketa³², non, eskumeneko botereak zuena baino garrantzi handiagoa hartzen duen.

Azken finean, Frankismoaren politika judizialak, nahiz eta zentzu batean aurreko antolaketa organikoa eta pertsonalen politika onartu, interbentzio ministerialak garrantzi handia dauka posible duen neurrian erabiltzen duelako.

²⁹ 1937 an FET de las JONSek egindakoa, bost anteproiektuetan biltzen ziren.

³⁰ Eredu liberalak antolaketa hierarkizatuan oinarritzen da

³¹ Estatuaren Administrazio zentrala, urtarrilak 30arren legearen bitartez, ministerioetan antolatzen zen, hain zuzen ere, lehen Justizia ministroa nafar tradizionalista esanguratsu bat izan zen: Tomas Dominguez Arevalo, Rodeznoko Kontea.

³² 17/7/1945 Legeak Auzitegi Gorenaren berrantolaketa eta Auzitegien Inspektzioaren legeak, besteak beste, kandidatu ezberdinak aurkezteko aukera ezabatzen du.

Gainera, kontrolatzeko, zeharkako moduan egin ohi zen, hau da, funtsezko postuetan Gobernuak nahi zuen izendapenak egiten zituen, honela, botere politikoarekiko lotura mantentzen zen eta itxurazko independentzia bat mantendu. Honela, botere politikoak fakultate zabala zuen kargu garrantzitsuak izendatzeko. Kasu honetan, ezin dugu ahaztu botere judiziala³³ izan zela gobernu interbentzioa gehien jasan izan zituena, batez ere, garbiketa prozesuaren bitartez. Gobernuaren ustetan, botere honek, frankismoaren ideologia mantentzeko, leialtasun handiena bermatzen zuen arloa zen.

Botere judizialak jaso zuen beste aldaketa, botere militarren konpetentzien igoera izan zen, besteak beste, disidentziaren zapalkuntza.

Beraz, hau guztia kontuan hartuta, ikusten dugu nola Frankismoak eta haren ideologiaren aldekoek, nahiz eta zeharkako modu bat erabili, gizarte bateko euskarrietako bat, justizia administrazioa, kontrolatzen zuten.

Espanian, gerra zibilaren ostean izandako garbiketa prozesuaren helburu nagusia Estatu berriaren fideltasuna bermatzea zen. Honenbestez, bereizi nahi zuten erregimenaren aldeko afekzioa azaleratu ez zituzten horiek. Hala ere, ezin dugu ahaztu garbiketa prozesu honek izandako izaera zigortzailea eta eredugarria.

Beraz helburu hau lortzeko interesgarria da azpimarratzea Estatu batean epaile eta fiskalek izan dezaketen garrantzia. Honela, fiskal eta epaile karrerek garbiketa prozesu honi izaera berezi bat ematen diote. Prozesu hauek duten izaera pertsonalistagatik dira adierazgarriak, besteak beste, pertsona batek botere diziplinarioa eta jurisdikzionala dituelako.

Legeei erreparatuz, 1870eko CGPJko legeak³⁴ afiliazio politikoak edota ideologia konkretu baten manifestazio publikoa saihesten zuen, CGPJko kideen artean apolitismoa sustatu nahian. Honekin batera haien independentzia eta inpartzialtasuna lortu nahi zen. Beraz, hau guztia kontuan hartuz, Frankismo garaian kontrakoa gertatzen zen, garrantzia hartzen zuen bere aktibitate profesionalak eta izandako jarduera profesionalak. Are gehiago, garrantzia hartuko du baita ere familia eta gizartean izandako ohiturak.

³³ Epaile eta Fiskalen Garbiketa Prozesuaren bitartez.

³⁴ 1870ko irailak 15eko Legea.

Honela, Monica Laneroren³⁵ ustetan, bereizteko erabiltzen den elementu nagusia gerra aurretiko, bitarteko eta osteko aurrekari ideologikoak dira, epaile eta fiskal askok jasan izan zuten betiereko inhabilitazio edo bereizketak horren ondorioz.

Prozesu hau ezagutzeko, lehendabizi iturriak zeintzuk izan ziren jakin behar dugu. Garrantzitsuena espediente ezberdinak izan ziren, horregatik, lan honetan espediente batean oinarrituko gara. Espediente hori 1939ko otsailaren lege horretan oinarritzen da nagusiki.

Halaber, garbiketa prozesu hau ez zen oso espezifiko izan maisu eta maistren kasuan gertatu zen bezala. Kasu honetan, epaile eta fiskalenean alegia, lege orokorretan oinarritua egin zen, funtzionario eta langile publikoei ezarri zitzaizen moduan.

Prozesu honetan bi fase existitzen dira, alde batetik gerra zibilari dagokiona, 1936 eta 1937an eman zena eta bestetik 1939ko otsailean eman zena erantzukizunak garbitzeko asmoarekin. Bigarren honek eragin handiagoa izan zuen pertsona gehiagotan eragin baitzuen. Batez ere 1939, 1940 eta 1941. Urteetan.

Lehen fase hori (gerra zibilari zegokiona) Defentsa Nazionalaren Batzordearen 108. Dekretuaren³⁶ bidez egin zen, honen helburu nagusia mugimenduaren kontra edo jarrera antipatriotikoak zituzten horiek funtzionario edo enplegu publikoetatik bereiztea zelarik. Argi geratu behar da ez zela funtzionario talde bat existitzen zeinak garbiketa prozesua zuzentzen zuen. Batzorde Teknikoko Komisioak izendatutako epaile instruktore batek prozesua aurrera eramaten zuen eta azkeneko erabakia Batzordeko Presidenteak zeukan. Gainera, ez zen prozedimendu bakar bat existitzen baizik eta kasuan kasuko ezartzen ziren, hau da, funtzionario bakoitzak berea izan zuela esan dezakegu.

Espediente askoren ezaugarria garbiketa prozesuaren eta zuzenketa diziplinarioaren artean zegoen. Prozesuaren beste ezaugarri bat, legearen arabera, zilegia ez den zerbait leporatzeko, pertsona horrek izandako influentzia politikoa bilatzen zen. Hau da, esaterako, norbaitek bere formakuntzan maila igoera bat izaten bazuen, influentzia politikoa esker zela leporatzen zitzaien. Honela, ideologia politiko

³⁵ LANERO TÁBOAS, M. “La depuración de Jueces de y Fiscales”, *II Encuentro de investigadores del Franquismo*, 1go alea.

³⁶ Junta de Defentsa Nazionaleko Aldizkari Ofiziala, Burgosen 1936ko irailaren 16an.

bat jarraitzen zutela leporatu ziezaioketen. Premisa hauetatik ondoriozta dezakegu, askotan erresoluzioetan nahiz eta ez antzeman subjektu konketuak ideologia konketu baten alde edo kontra dauden, eragin politikoa leporatu zezaketen bere defentsarako aukera gutxi utziz.

Gainera, garbiketa prozesuaren beste ezaugarri bat zigorren izaera pertsonalista da, honela, eta ikusi dugun moduan, zigorrak mota askotakoak izan zitezkeen, beraz planteatzen da ea existitzen zen erlazio bat zigorrak eta pertsonen jarreraren artean. Honen inguruan, hainbat espediente aztertu ondoren, hurrengo ondorioztatu da: zigorra zerbitzutik bereiztea zenean, pertsona konketu horrek kontrako ideologia bat zuelako zela. Nola jakin zein kasutan aurkitzen ziren kontrako ideologia batekin? Pertsona konketuak Frente popularrarekiko zerbitzu profesional konprometitua zuenean edota pertsona horrek denbora labur batean maila igoera azkarra zuenean ematen zen. Bestalde, bi hauek, ideologia konketu batek duen pertsonarekiko laguntasunaren artean gailentzen ziren. Hola ba, lehenengo garbiketa prozesu honen gako pertsona batek zuen jokaera profesionala zen. Aitzitik, hurrengo kasuetan zigor larriak ere aplikatu zitezkeen. Nahiz eta garai hartan mugimendu nazionalari atxikimendua eman, errepublika garaian errepublikazaleen alde zeudenentzat ezartzen ziren zigor hauek. Azkenik, zigor arinak jarrera profesional inpartziala duten horiei ezartzen zitzaizkien.

Espedienteen ebazpenen ezaugarri nagusienetarako bat, lehen esan bezala, arbitrariedadea zen, are gehiago, susmoa frogarekiko gailentzen da. Beraz, susmoarekin aski zen zigor bat ezartzeko.

Gerra amaiera hurbil zegoenean beste garbiketa prozesua ezarri zen, Estatu osoko funtzionarioen artean. Bigarren hau, esan bezala, 1939ko otsailaren legea oinarritzat hartuz egin zen. Hau, bigarrenarekin konparatuz globalagoa da eta ondorioz prozedimendu bakarra eta konplexuagoa eman zen lehenengoarekin konparatuz.

Garbiketa prozesu honekin hasi zen momentuan, 1939ko martxoaren 2ko legeari³⁷ esker, funtzionario talde guztien mugikortasun eza etendua gelditzen zen.

Baina aurrekoari erreparatuz, lege honen izaera bere zenbaterainokoan ikus dezakegu; okupatu berriak izan diren lekuetako funtzionarioei ezarriko zaie garbiketa prozesu hori. Honela, ministerio bakoitzak nahi duen instruktore iraunkorra izendatuko

³⁷1939ko martxoaren 3ko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

du zonalde konkretu bakoitzeroako, are gehiago, garbiketa prozesu honetan parte hartzeak, Auzitegi Gorenerako eta Inspezio Auzitegiarako postuekin saritzen zen.

Bigarren garbiketa prozesu honetan, prozedimendua ezberdina zen, kasu honetan, kargu-orri bat egiten da eta ondoren deskargu-orria bat aurkeztu behar du subjektu konkretuak. Gainera, 1940. urtean garbiketa prozesu honetarako postu garrantzitsu bat sortzen da Romualdo Hernandez Serranoren³⁸ pean.

Garbiketa prozesu hau, lehenengoa baino askoz ere arinagoa da eta bere helburuak argi zituen: pertsona konkretuak aukeratu. Kasu hauetan, ikerketa laburragoa zen eta kasu eztabaidagarrienetan sakontzen zen bakarrik. Izan ere, garrantzi gehiago zuen gobernu errepublikazaleekin parte hartze izatea edota organismo judizialeetan parte hartzea. Honen aurkaritza ere aztertzen zen, hau da, mugimendu nazionalaren alde eginiko ekintzak. beraz, aurrekoan ez bezala, izaera diziplinarekin zerikusia zuten kontuek ez zuten hainbeste garrantzirik.

Espedientearen hasiera ezberdina da ere, kasu hauetan ez da denuntzia baten bidez hasten baizik eta kokaleku geografikoak hartzen du garrantzia, eta datu horiengatik dagokion funtzionarioak has zezakeen prozesua. Honenbestez, lehen esan bezala, pertsona baten aurrekari ideologikoak garrantzi handia hartu zuen, zentzu zabal batean ulerturik, besteak beste; erlijioa, morala etab. Orduan, ideologia kontserbadorea zuen batek mugimendu nazionalarekin bat zetorrela ondorioztatzen zen.

Garbiketa prozesu honetan, Monica Laneroren³⁹ hitzetan, harrigarria da militar epaitegiek, epaile eta fiskalei dagokionez, izan zuten onberatasuna kasu batzuetan ez ezik, erbestean edo fusilatuak izan zirenen kasuetan. Kasu hauetatik at, baina onberatasunaren salbuespenekin jarraituz, besteetan zigor larriena ezartzen zitzairen gehien bat zuzendari karguak izan zituzten haiei.

Auzitegien erresoluzioek, lehenengo garbiketa prozesuan bezala, izaera arbitrario handia izan zuten. Kasu hauetan, Luis Elioren kasuan bezala, datu gutxirekin eta nahiz eta hauek oso ziurrak ez izan, ondorioetara iristeko aski zen. Gainera ez zegoen helegite aukerarik erresoluzio horien kontra.

³⁸Auzitegi Goreneko Fiskal Inspektorea.

³⁹ LANERO TÁBOAS, M. “La depuración de Jueces de y Fiscales”, *op.cit.*

Datuei erreparatuz, 1936 eta 1940. urte bitartean 368 epaile izan ziren garbiketa prozesu hau pairatu zutenak, hain zuzen ere osotasunaren %37a⁴⁰.

Beraz, honekin guztiarekin ikus dezakegu, lehen esan bezala, nola Frankismoak kontrolatzen zuen justizia administrazioa garbiketa prozesuari esker, beraien ideologiarekin bat etortzen zirenak izendatzen zituzten, eta haiena ez zena edo inpartzialtasunez jokatzeko zutenak zuten lanpostuarekiko aldenduz. Laburbilduz, justizia aplikatzeko boterea zutenek, frankismoak sinesten zuen justizia aplikatu behar zuten, hau da Frankismoak zituen oinarriak aplikatuz eta ideologia horretatik at zegoena legez kanpo utziz eta zigortuz.

3. Espedienteak

1940ko martxoaren 18an hasi zen Luis Elioren espedientea, konkretuki, Nafarroako Artxibo Nagusian aurkitu dezakegu lehendabiziko “rollo” horretan epaitegien esku eman zen ikerketa⁴¹. Ikerketa honek bere eginkizun politikoak jakitea du helburu eta behin hori jakinda, bere erantzukizun penala, administratiboa eta zibila zein izango zen jakitea da.

Honela ba, behin bere bizitza ikuspuntu zabal batetik ikusi eta gero, espedienteetan zentratuko gara.

Espedientean irakur dezakegun lehendabiziko gauza enbargoaren paper ofiziala da⁴², honekin batera, eraikuntza eta lursailen balorazio periziala egitea eskatzen da.

Lehendabizi, 1937ko maiatzaren 5eko probidentzia bat daukagu⁴³ non ikus dezakegun Nafarroako Ondareen Batzordeak eskatu duen moduan, Luis Elioren espedientea instruituko dela Erantzukizun politikoko Dekretu-Legearen arabera.

Beraz, frogak bilatzeko, epaileak hainbat instituzioei bidaltzen die nahi hori, eta horren ondorioz haiek posible duten informazio gehienarekin erantzun behar dute. Zehazki, Probintziako Gobernadore Militarra eta Zibilari, Guardia Zibilaren Nagusiari eta FET de las JONSeko nagusiari bidaltzen zaie⁴⁴. Epaileak argi uzten du Mugimendu

⁴⁰ *IBÍDEM*.

⁴¹ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm 775.

⁴² AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm 775.

⁴³ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm 775.

⁴⁴ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm 775.

Nazionalaren hasiera eta ondoren izandako ekintza politikoak jakin nahi dituela, beraz, atzerakortasuna onartzen zela ikus dezakegu.

Gainera, izandako jarrera hori, Dekretu horren seigarren artikulua arabera, hasieran zegoen enbargoarekin erlazionatu behar da eta ondoren, beharrezkoa dena akordatu dela agintzen du epaileak.

Probidentzia hori jaso ondoren “Comisaría de Investigación de Vigilancia de la Provincia de Navarra” eta Komisaldegi Nagusiak, epaileari erantzun zioten Elioren ekintza politikoei buruzko datuak emanez, hala nola: Alderdi Sozialistan afiliatua zegoela, Liga Masoniketako kide aipagarrietariko bat zela, eta gainera haien ustetan gaitz gehiago egin zuen Epaimahai Mistoen buruan izan zuen partzialtasunak bere afiliazioak baino. Azkenik, Mugimendu Nazionalaren lehendabiziko egunetan ihes egin zuela eta dokumentu hori bidali zen momentu horietan ez zekitela non egon ahal zen.

Bestalde Iruñeko alkateak erantzun zuen ere, bertan aipatzen duen moduan Konstituzio Guardiak ezer ez zekien Luis Eliori buruz. Hala ere, Elizondoko udaletxetik jaso zituen informe batzuen arabera, PSOEko propagandista aktibo bat izan zela aitortzen zuen. Honek, Mugimendua hasi eta egun batzuk beranduago ihes egin zuela ere aipatzen du eta are gehiago, aurrenekoetan bezala, momentu horretan non dagoen ez dakiela aitortzen du.

Ondoren, Lehenengo Instantziako abokatu eta sekretarioaren esku ofiziozko beste informe bat bidaltzen da Gobernadore Militarrari erantzuna emateko asmoarekin⁴⁵. Honela, uztailaren 19an atxilotuak egon ziren 6 pertsonen buruzko informea bidali zen, horietako bat Luis Eliorena izan zelarik. Honek ez zituen gainontzekoen aurrekari berdina ordea, gainera FET de las JONSekoek informazio gehiago eman ahal ziotela gehitzen du.

Jasotako beste erantzun bat “*Comisaria de Investigación y Vigilancia*”-k emandakoa da, 1937ko azaroaren 24an hain zuzen ere⁴⁶. Bertan berriz ere, Luis Elioren aktibitatei buruzko informazioa ematen da, hala nola, Herriko Etxeko afiliazioa eta honetarako lana egin zuela, Epaimahai Mistoen presidentea izateko hautagaia izan zela hala proposatzen zutelako.

⁴⁵ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm 775.

⁴⁶ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm. 775.

1938ko urtarrilaren 26an Epaileak probidentzia baten bitartez, FET de las JONS Probintziako Nagusiari, Luis Elioren zirkunstantzia pertsonalak kontuan harturik hurrengo informazioa eskuratzea eskatzen dio⁴⁷: zeintzuk izango diren aringarriak eta astungarriak, bere bizilagunek betirako joan dela esaten zutenez, ea hori egia den ala ez eta bere emaztea eta alaben adina eta ideia politikoei buruzko informazioa.

Gainera, Luis Eliok ez zuenez ez erantzuten ezta agertu ere ez egiten, Ediktuen bidez deitu zitzaion. Hau da, Probintziako Aldizkari Ofizialean publikatuz. Zehazki, 1938ko otsailaren 2ko Aldizkarian, atal judizialaren barruko atal batean Lehen Instantziako epaitegian jarraitzen ari diren espedienteak agertzen ziren, eta Comisión de Incautación de Bienesen arabera, urtarrilak 10 dekretua oinarritzat hartuz pertsona batzuk izendatzen ziren. Pertsona horien artean Luis Elio agertzen zen eta bertan eskatzen zen hurrengo zortzi egunetan han agertzea, fisikoki ala idazki baten bidez. Aukera hori ematen zitzaaien haien defentsarako eta bere ustetan egokiak ziren frogak aurkezteko.

Bestalde, San Agustín Parrokiako parrokoari beste informe bat eskatzen zitzaion, honek Luis Elioren datuak emanaz erantzun zuen, zehazki, Orreaga kalean bizi zela X. zenbakian 5. ezkerra, eta Tarragonan jaio zela ere, momentu horretan 48 urte zituela eta ezkondua eta hiru alaba zituela.

Ondoren, 1940ko apirilaren 4ko auto baten arabera⁴⁸, Erantzukizun Politikoko Legearen 4. artikuluan bere jokaera sartzen zela aipatzen zuten eta gainera, lege honen arabera erantzukizun politikoko indizio bat ezagutzen den momentuan bertan, epailea informatua izan behar zela ezartzen zen.

Azkenik, Luis Elioren partez ez zenez deskargu frogarik aurkeztu, Tribunal Erregionalari aurkeztu zitzaion dagokion epaileari bidaltzeko. Honetatik guztietatik ondorengo datuak frogatutzat ematen dira: Lehendabizikoa, Luis Elio Torres PSOEn afiliatua egon dela, hala adierazi zuten Alkateak eta FET de las JONSek. Bigarrenez, bere afiliazioa zela medio, konfiantza ematen zuen *Epaimahai Misto*en burua izateko. Hirugarrenez, bateratasunik ez egon arren, “*Liga de los Derechos del Hombre*” sartua

⁴⁷ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm. 775.

⁴⁸ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm. 775.

zegoela antzemate zen. Azkenik, ihes aurkitzen zela eta ez zela Espainia Nazioanalarekin bat etortzen, hau da, oraindik ez zuela atxikimendurik egin⁴⁹.

Guzti hauek 1939ko otsailaren 9ko legeko 4. Artikuluko b), c), e), eta m) apartatuan aurkitzen ziren. Ondorioz, honekin guztiarekin, epaileak momentuko legearen arabera zegokion ondorioa ezarri behar zitzaion.

Bigarrenez, Iruñeko Erantzukizun politikoen Auzitegi Bereziaren, 1798. Zenbakia duen espedientea da Luis Elio Torresen sententzia exekuzioa duenak.

Bertan agertzen den lehendabiziko gauza nekazal perituen idazki bat da, hain zuzen ere Francisco Diaz de Cerio y Goñi jauna eta Pedro Roche Santa Fe jauna, bakoitzak bere helbidearekin, gainera ondo azaltzen da Auzitegia izan zela bi hauek izendatu zituenak apirilak 26ko probidentzia baten bitartez, Luis Elio Torresen finken tasazioa burutzeko asmoarekin. Honela ba, finken zenbaketa egin zuten bakoitza bere tasazioarekin eta zenbaketa horren emaitza ondorengoan laburtu dezakegu: 345.106, 31 pezeta baloratutako 26 finka, zehazki, San Juanen 7, Ermitagainan 2, Beritxitosen 8, Errota Berria zonaldean 2 finka, San Makarion 3 finka eta Landabenen beste 4 finka⁵⁰.

Osozara 345.106, 31 pezeta osatzen zuten, behin hau jakinda, Erantzukizun politikoen Auzitegiak, 59.2. artikulua pean dokumentu horiek bidaltzen ziren, epaileak enbargoa eta dagozkion neurriak hartzeko asmoz, zegokion zigorra betetzeko asmoz. Gainera, beste probidentzia baten bitartez ezagutzera ematen da, edonork Luis Elioren kontra erreklamazioen bat baldin bazuen 30 egun zituela hauek ezagutzera emateko.

Gainera inkautazio espedientearen bitartez, Iruñeko lehenengo instantziako epaitegiak, 108. Dekretuan oinarrituz, diligentzia baten bitartez Gobernadore Militarrek, Luis Elioren ondasun guztien inkautazioa agintzen du dekretu horren 5. Artikulua pean.

Beste probidentzia baten bitartez, 1936ko abenduaren 30an Espainiako banku eta kutxa guztiei Luis Elio haieran diru kopurua zuen ala ez ezagutzera emateko agindua ematen zitzaien, eta hala balitz, hauek Epaitegiaren esku geratzen zirela esateko. Probidentzia honen erantzuna ondorengoek eman zuten: Caja de Ahorros y Monte

⁴⁹ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm. 775.

⁵⁰ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm. 775.

municipal, Caja de ahorros de Navarra, Banco Popular de los previsores del Porvenir, Banco Bilbao-Pamplona, Banco Hispano Americano, Caja de Ahorros, Banco Español de Crédito eta Banco de España⁵¹.

Bestalde alkateari beste probidentzia bat bidali zitzaion eta honi erantzuna eman zion bere etxe ondareengatik, 6448,04 pezetetako zerga oinarri bat zuela erantzuten.

Jarraian zerrenda oso luze bat biltzen da, bere etxeetako batean bizi diren bi emakumeena eta bertan, Luis Eliorenak ziren gauza guztiak izendatzen dira, adibidez, platerak, koadroak, altzairuak etab.

Bestalde propietate erregistratzaileari Luis Elioren Barañaineko eta Iruñeko etxeei buruz informatzea eskatzen zaio, honi erantzuten, bere menpe Barañainen eta Iruñean 25 etxebizitza zituela erantzun zion, behin hau jakinda hauen konfiskatzea eta etxe horien azterketa egiteko agindua eman zen

Honela, Orreaga kalean zeuden etxeetako batetik, 6. Zenbakiko 4. Pisuan hain zuzen ere, inbentario bat bidali zuten. Honetan beste bezain zehatza da baina etxeetako logela ezberdinak azaltzen ditu; egongela, jantokia, sukaldea, komuna, logela urdina, bulegoa etab. Inbentario hau zazpi orrialdez osatua dago eta bertan zegoen guztia aipatzen du, zuzenbideko liburuetatik hasi eta bonboi kutxa bat arte. Honenbestez, beste orrialde aparte batean Orreaga kaleko etxe horretan aurkitzen ziren liburu guztien lista zehatz bat egin zen.

Gainera, Erantzukizun Politikoetako Auzitegiatik, Epaile Instruktopeak, larrialdiz, eskatu zuen ahal bezain pronto eta “*sin dar lugar a recuerdos*” diligentsia guztiak egitea, hau da, ondasun guztiaren tasazioa. Gainera, aberriaren alde eta dohainik egitea eskatu zuen.

Espedientearen amaieran sententzia baten bitartez 1941ko uztailaren 10ean 75.000 pezeta eta bereak ziren etxebizitza gehien enbargoarekin zigortu zitzaion⁵².

Azkenik, Carmen Bernalen eskutitz bat aurkitzen da eta bertan erregimen ganantziolari esker bereak ziren ondasunak aipatu zituen, eskutitz hau ez zuen Iruñetik bidali. Beste eskutitz bat ere biltzen da Daniel Fernandez Olcinarena, Balentziako mediku batena, Orreaga kaleko 4 zenbakiko 5. Pisuan bizi zena eta etxe horretan zeuden

⁵¹ AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm 775.

⁵² AGN, Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas, rollo del TRP núm 775.

ondasun guztiez probesten zela azalduz, eta honek hurrengoarekin erantzun zuen; ondasun guzti horiek epaitegiaren pean jartzekotan berak pisuagatik diru kantitate gutxiago ordaindu behar zuela.

IV. ONDORIOAK

Behin botere judizialean egon zen garbiketa prozesu guztia azaldu eta gero, eta hau kasu konkretu batekin erlazionatu ondoren, Luis Elio Torres epailearen kasua hain zuzen ere, ikus dezakegu nola diktadura garaian zegoen botere unipertsonalak bere ideologiarekin bat ez zetozenak zigortzen zituen. Eta ez hori bakarrik, jarrera inpartziala zutenak zigortzen zituen ere alegia. Honela, garaian eskatzen zen jarrera aktiboarekin aurrez aurre aurkitzen gara eta horrekin loturik garaiko esaldirik famatuenetarikoa batekin: “*ver, oír y callar*”. Hori zen garai horretan gizartearen gehiengoak hartu zuen jarrera, jasan behar zituzten ondorioak ikusi eta gero. Southwothek⁵³ esan bezala, berrogei urtez Espainiako biztanleria historia eta honi zegozkion albo-ondorio faltsuak sinestera behartu zuten.

Honekin batera, antzeman dezakegu garaiko legeria, berez, legalitate baten barruan onartzen zela. Hala ere, sistema diktatorial baten legeak ez dira ordezkari instituzio batetik eratortzen, hau da, herriaren botereak ez du botere legegilea aukeratzen, beraz, botere legegileak ez zuen herria ordezkatzeko. Honenbestez, ez zen legalitate printzipioa betetzen, eta printzipio hau zuzenbidezko estatu sozial batentzat funtsezkoa da. Honela, Frankismoak 1945eko uztailaren 17ko lege batean, hemeretzigarren artikuluan honakoa bildu zuen hurrengo esaldiarekin: “*nadie podrá ser condenado sin o en virtud de ley anterior al delito, mediante sentencia del tribunal competente y previa audiencia y defensa del interesado*”. Hala ere, begiak pixka bat irekiz gero eta zilborraz pixka bat haratago begiratuz, Kode Penalak berak legalitate printzipioaren funtsezko postulatuak ezeztatzen zituen, kontuan hartuz honek inplikatzeko duena: soilik gizartea ordezkatzeko duen pertsona legegile batek (edo hobe esanda, batzuek) ezarri dezake zeintzuk izango diren delituak eta zigorrak. Honela, botere legegilearen kontzentrazioa esku gutxitan uzteak (edo Francoren eskuetan) eta gobernadoreen interesen kontrako jarreraren zigortzeak (delitu politikoak eta iritzikoak, batez ere) legaltasun printzipioa urratzen zuten.

⁵³ HERBERT R. SOUTHWORTH, *El mito de la cruzada de Franco*, prólogo a la segunda edición, Barcelona, 2011.

Honi, susmoaren zigortzea gehitu behar zitzaion, hau da, Luis Elioren kasuan bezala, zenbait espedienteetan onartzen zuten datuen egiazkotasunari buruz ziur agertzen ez direla, baina hala ere zigortuko zutela. Honek legalitate printzipioa urratzeko beste modu bat suposatzen zuen.

Bestalde, zuzenbide penalean ematen zen elkarrekikotasuna azpimarratu behar da, honek intseguritate juridikoa puskatzen du, besteak beste, errepublika garaian PSOEn afiliaturik zegoen edonork ez zekien ondorengo urteetan hori ilegalizatu egingo zela. Beraz, zuzenbide penalarekin lotuz gero, militanteek ezin zuten aurreikusitako momentuan legala zena etorkizun batean ilegalizatu izango zenik, haien buru militante edo afiliatu ezarri zutenean ez baitzekiten delitu bat egiten ari zirenik. Beraz, hemen zuzenbide penalean ezinbestekoa den borondatezko nahimena eta elementu kognitiboa falta dira, ondorioz delitua kontsideratzeko beharrezkoa den baldintzetako bat falta zen. Honenbestez, frankismoak zigortzeko garaian erabili zuen prozedimenduak ez zuen legalitatea eta ezinbesteko printzipioak betetzen.

Halatan, Marxen hitzak hona ekarriz, Frankismoak ideologiarekin kontrolatu ezin zutena, sistema judizialaren bitartez egiten zuten.

Herriaren boterearen funtsezko zentzua, legitimitate politikoaren oinarritzko irizpide baten egituraketan datza. Legitimoa izan daitekeen orden politiko bakarra, hau jasango duten haiengatik baieztatua eta onartua izan dena soilik izango da. Beraz, herriaren eskuz sortutako botere politiko horiei men egingo diona izango da demokrazia edo herriaren subiranotasuna. Existitzen den botere legitimo bakarra herriaren botere politikoa da beraz, Rousseauk “Teoría del Contrato Social” (1758)⁵⁴ azaldu zuen moduan.

Beraz, lan honen bidez ikus dezakegu nola frankismoak epaileak epaitzen zituen. Gaur egun ordea epaileak izan dira frankismoa “epaitu” edota ikertu nahi izan dutenak, horretarako bi kasu ezagun ditugu. Alde batetik, Garzon espainiar epailea, zeinari Espainiako Auzitegi Nazionalaren auto baten bitartez, prebrikazioaz⁵⁵ akusatu zaion. Hau da, epaile batek, nahiz eta sententzia legearekin bat ez datorrela eta bidegabekoa dela jakin, horrela onartzen duenean ematen da delitu hau. Doktrinaren eta jurisprudentziaren arabera, erresoluzio bat bidegabekoa izango da bertan egindako

⁵⁴MENKE, C. eta POLLMAN, A. *Filosofía de los derechos humanos*. Herder, Barcelona 2010.

⁵⁵Espainiako kode penalaren 404. artikulua

interpretazioa guztiz ilogikoa, irrazionala eta legez kanpokotasun gori batean ematen denean⁵⁶.

Luciano Varela epailearen bidez, Garzonek preskribitutako edota amnistiatuak izan diren ekintzak epaitu nahi ditu baina ekintza hau Espainiako ordenamendu juridikoaren aurkakoa da. Honela, Garzonen ustez, frankismoan gertaturiko ekintzak humanitatearen aurkako delituak izan daitezke, kode penalaren 601.bis artikuluan oinarrituak. Varelaren ustez egite hau legalitatearen printzipioaren aurka, konkretuki, irretroaktibitatearekin hausten da. Argudio honen kontra argudioa esparru internazionalan aurkitzen dugu, hau da, nahiz eta garai horretan delitu horiek ez ziren momentuko Espainiako Kode Penalean biltzen, esparru internazionalan ordea bai biltzen ziren eta ezin dugu ahaztu esparru internazionala nazionala baino maila gorakokoa dela.

Are gehiago, doktrina internazionalistaren arabera, humanitatearen aurkako krimenak egiten dituen horren erantzukizun penala zuzenbide internazionalaren arabera epaituko da. Gainera, delitu hauek XIX. mendeko amaieran eta XX. mendeko hasieran bildu ziren eta bortxatutako desagertzeak *ius cogenseko* norma bezala biltzen da. Honekin batera agertzen diren legez kanpoko atxiloketak hainbat nazioarteko tratatuetan biltzen dira⁵⁷ ere, zeinetan Espainiak parte hartzen duen.

Beste modu batera adierazita, humanitatearen kontrako krimenen lege internazionalak duen izaera inperatiboa, hurrengo ondorioztatzera eramaten gaitu: legea internazionala izanik, zuzenbide internazionalan biltzen den legalitate printzipioari erreparatu behar diogu, eta ez ordea, zuzenbide nazionalekoari. Ondorioz, bere atzera begirako aplikazioa biltzen da⁵⁸.

Espainiako Auzitegiak ondorio horretara ailegatu dira, baita auzitegi internazionalak ere⁵⁹. Honela, Garzonen ustetan nahiz eta krimen horiek momentu historiko horretan indarrean ez egon, testuinguru konkretu baten barruan egiten ziren; ez ziren delitu isolatuak bezala egiten baizik eta biztanleri zibilaren aurkako eraso plan

⁵⁶Auzitegi konstituzionala, 111/1997 (17/03/1997)

⁵⁷ONUko Batzorde Orokorra, 47/133 erresoluzioa, 1992ko abenduaren 18a.

⁵⁸Cfr. CHINCÓN ÁLVAREZ, J., "Examen del Auto del Juzgado de Instrucción", 5. zb, 3. orr.

⁵⁹Vid., Giza Eskubideen Auzitegia, Kislyiy vs. Estonia, 2006ko urtarrilak 17

konkretu baten ondorioa⁶⁰ bezala.

Orain arte aipatutako guztiaren ondorioz, Garzonen kontrako auto honetan injustizian oinarritzen dira, baina injustizia hori krimen frankisten inpunitatea bilatzen duen interpretazio batean oinarrituz.

Bestalde, egun hauetan entzuten den moduan, Buenos Aireseko Auzitegi Federala 1.ko argentinar epailea den Maria Servini Cubriak, momentu honetan eramaten ari duen kereilan honako gertakariak biltzen dira; genozidioa eta humanitatearen kontrako delituak eta horren barruan torturak, behartutako desagerrarazteak, eta haur lapurtzeak, hauek Argentinako Kode Penalean bilduta daudelarik⁶¹. Gertakizun hauek Espainian gertatu ziren 1936ko uztailaren 17tik 1977ko ekainaren 15erarte.

Berak azaldu duen bezala, gaur egun dikotomia egoera bat dago; alde batetik Espainian, Espainiako Fiskalia Orokorrek bidalitako informearen ondorioetan irakur daiteke gaur egun kasu asko eramaten ari direla gerra zibila eta frankismoaren inguruan.

Adibidez, momentu honetan, Granadako Instrukzio Epaitegiaren esku, prozedura konkretu baten kompetentzia ezartzeko asmoz Auzitegi Gorenaren azterketa bat aurrera eramaten ari da. Konkretuki, aurretik egindako plan batekin behartutako pertsonen desagerraraztea eta guzti hau humanitatearen aurkako delituak aintzat hartuz.

Fiskalia horrek esaten duen moduan, Instrukzio Epaitegi askok euren burua kompetentzetzat hartu dute euren kokaleku geografikoa irizpidetzat hartuz, beste hitz batzuetan esanda, haien kompetentziaren barruan dagoen kokaleku batean eman zirelako gertakari hauek. Hauek ordea argudio juridikoetan oinarritutako erresoluzioen bidez artxibatuak izan dira bai froga faltagatik edota erantzukizuna desagertu delako (hil direlako edo denbora pasa delako).

Beraz, honekin guztiarekin, memoria historikoaren eskubidera ailegatzeko gara. Lehenik eta behin esan beharra dago Frankoren irizpideak izan ziren Alemania eta Italiako erregimenak epaituak izan zirela bere momentuan, Nürenbergeko epaiketan esaterako. Hauek nahiz eta esparru internazionalan izan, euren ordenamendu nazionalerako balio izan dute, baina Espainiako kasuan ez da gauza bera gertatu, ez da inongo epaiketarik egon ez esparru nazionalan ezta esparru internazionalan ere ez.

⁶⁰ Audientzia Nazionalaren Autoa, 399/2006 FFJJ

⁶¹ Argentinako Kode Penalaren hurrengo artikuluetan bildutak: 79, 80, 144.1, 142, 144.3, 146.

Honela, gizarte mugimendu bat dago non memoria historikoa defendatzen dute eta horren alde lan egiten dute.

Honela, Memoria historikoaren arabera ez dute defendatzen atzera begiratzeko momentu ez dela, baizik eta Frankismoko biktimak gaur egun badiraute, bizirik eta justizia eskatzen dutena, are gehiago, batzuk euren senideen gorpuak bilatzen dituzte. Gainera, trantsizio garaian zin egin zitzairen konponketa eta ordain prozesu horrek aurrera egingo zuela, baina goizegi zela oraindik. Gaur egun kontrakoa gertatzen ari da, orain beranduegi dela esaten baitzaie. Berandu da bai, horregatik ahalik eta azkarren konpondu beharreko zerbait da. Memoriaren kontrakoa ez da etorkizuna; amnesia baizik.

Gainera, Espainiako gerra zibila eta gero oraindik erailketak egon ziren, zehazki, Frankismoko azkenengo kontzentrazio gunea 1947an itxi zen. Gainera, mugimendu nazionalsozialistak babestu zutenek eta biktimak izan zirenek, haien familiakoek edo beraiek bera ordain ekonomikoak jaso zituen.

Beste ondorioetako bat gaur egun oraindik geratzen eta antzematen diren Frankismoaren hondarrak dira, zuzenbidearekin eta herriaren boterearekin zerikusia duenak; erregearen figura batik bat. Hau da, ez zioten garaiko Espainiako herriari monarkia ala errepublikaren artean aukeratzeko aukerarik eman, ezta monarkia izatekotan, izango zen erregea nor izango zen, zeren eta Frankok ezarri zuen Juan Carlos I. Errege hau gaur egun arte izan da monarka, alegia, momentu hauetan 2014eko ekainaren 2ra arte non Juan Carlos I.ak bere semearengan abdikatu duen. Beraz, berriz ere ez zaio Espainiako herriari aukerarik eman Estatu buru zein izango den aukeratzeko, ezta inolaz ere Estatu monarkikoa ala errepublikazalea nahi duen aukeratzeko. Hori dela eta zeharkako modu batean esan dezakegu hurrengo egunetan Felipe Borboikoa errege izendatzen badute, nahiz eta Espainiako konstituzioarekin bat etorri, ez da Espainiako subiranotasunean bere osotasunean oinarritu, are gehiago, Frankok bere garaian ezarritako zerbaiten ondorioa da.

Lan honekin Frankismoak izandako ondorioetako batzuk ikusi ditugu, hala ere, gure herriaren historiaren zati garrantzitsua izan da, eta ezin dugu ahaztu sistema hori guztia lege batzuetan oinarritzen zela, garaiko zuzenbidea osatzen zutenak alegia.

BIBLIOGRAFIA

ALTAFFAYLLA, *Navarra de la esperanza al terror 1936*, AFAN, Tafalla, 2004.

Foro Jurídico Iberoamericano, la revista internacional del derecho práctico, “entrevista a la Doctora María Servini de Cubria” *Foro Jurídico Iberoamericano, la revista internacional del derecho práctico*:

Web: <http://www.forjib.org/entrevista-a-la-doctora-maria-servini-de-cubria>

ELIO, L., *Soledad de ausencia, entre las sobras de la muerte. España 1936* Pamiela, Iruñea, 2002.

GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, A., *El exilio republicano navarro de 1939* Gobierno de Navarra, Iruñea, 2001.

JIMENO ARANGUREN, R., “La represión y depuración en la Administración de Justicia: Navarra, 1936-1945. Una primera aproximación”, *Jueces para la Democracia*, 79 (2014), 86-106. orr.

MENKE CHRISTOPH ETA POLLMANN HARD, *Filosofía de los Derechos Humanos*, Herder, Barcelona, 2010.

MONTGAUT CONTRERAS, E., “Comités paritarios”, *Blogspot, ideólogos*, 2010eko azaroaren 27an.

LANERO TÁBOAS M., “La depuración de la magistratura y el ministerio fiscal en el franquismo (1936-1944)”, *Jueces para la democracia*, 65. zenbakia, 2009, 39-57. Orr.

LANERO TÁBOAS, M., “La depuración de jueces y fiscales: 1936-1944”, *Comunicaciones presentadas al II Encuentro de Investigadores del Franquismo: Alicante, 11, 12 y 13 de mayo de 1995*, Alicante: Instituto de Cultura Juan Gil-Albert, 1996, 1. alea, 353-372. Orr.

LANERO TÁBOAS, M., “Notas sobre la política judicial del primer franquismo, 1936-1945”, Javier Tusell (koord.), *El régimen de Franco, 1936-1975: política y relaciones exteriores*, 1993, Madrid: Universidad Nacional de Educación a Distancia, 1. Alea, 259-263. orr.

LANERO TÁBOAS, M., “Proyectos falangistas y política judicial (1937-1952): dos modelos de organización judicial del nuevo estado”, *Investigaciones históricas. Época moderna y contemporánea*, 15, 1995, 353-372. orr.

OLLAQUINDIA, R. “La Oficina de Prensa Propaganda Carlista de Pamplona al comienzo de la guerra de 1936”, *Principe de Viana*, LVI, 205, 1995, 485-508. orr.

PIÑEIRO MACÍAS, J. “Legislacion Bélica y represion Gubernativa durante la pasada Guerra Civil (V)”, *Revista de la Asociacion Cultural “Monte Irago”*, VIII, 17, 2006, 36. orr.

PRONO, SANTIAGO. “Estado de derecho y democracia acerca de la justificación del control judicial de constitucionalidad en la teoría del discurso de Habermas” *Revista de Derecho*, 2012. urtea 38. zkia:

-Web: <http://www.redalyc.org/pdf/851/85124997002.pdf>

REQUENA GALLEGO, M., “Los jurados de trabajo en la provindicia de Albacete durante la II República”, *Historia Social*, 33, 1999, 97-110. orr.

RUIZ ROBLEDO, A., “El principio de legalidad penal en la historia Constitucional” *Revista de derecho politico*, 42, 1996, 137-169. orr.

SÁNCHEZ-OSTIZ, M. *El Escarmiento*. Pamiela, Iruñea, 2013, 179-227. orr.

